

## BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

5595

*EBAZPENA, 2019ko azaroaren 14koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bitartez egiten baita 2020. urterako dirulaguntza batzuk emateko deialdia, ekitaldi horretan EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarrizko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuei zuzendua.*

Uztailaren 30eko 125/2018 Dekretuak honako programa honen oinarri orokorrak ezartzen ditu: EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarrizko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programa (2018ko abuztuaren 3ko EHAA, 149. zk.). Betiere, 1997ko abenduaren 11n sinatu zen EAEko Laneko Osasunerako eta Arriskuen Prebentziorako Lanbide Arteko Akordioaren III. atalean («Prebentziorako prestakuntza») ezarritakoarekin bat etorritik (1998ko urtarrilaren 27ko EHAA, 17. zk.).

Urtero egiten da dirulaguntza-jarduera horretarako deialdia, prebentzio-ordezkarien oinarrizko prestakuntza sustatzeko, langileen ordezkariek eginkizun espezifikoak baitituzte laneko arriskuen prebentzio-arloan izan ere, ezagutza normatibo eta tekniko horiekin, lankidetzan jardun dezakete enpresetako zuzendaritzekin, prebentzio-jarduna hobetzeko, eta langileen elkarlana susta eta bultzatzea laneko arriskuen prebentziora buruzko araudiaren aplikazioan. Eta, bereziki, besteak beste, laneko arriskuen prebentziora buruzko araudia betetzeari dagokion zaintza- eta kontrol-lana egin dezakete, kontsultatuak izateaz gain, alde zuzenetik, enpresaren aldetik, Laneko Arriskuen Prebentziora buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 33. artikulua kontuan hartuta.

Horregatik, uztailaren 30eko 125/2018 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, urteko deialdi publikoa onartu da 2020an EAEko enpresetako edo lantokietako prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarrizko prestakuntza hori emango duten entitate publiko edo pribatuen dirulaguntzetarako.

2018-2020ko aldirako Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen indarreko Dirulaguntza-plan Estrategikoaren babespean egin da deialdi hau (Osalanen web-orrian argitaratuta dago plana).

Kudeaketa azkartzeko, deialdiak 2020rako EAEko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espeditzearen izapidetze aurreratuari heltzen dio, honako hau kontuan hartuta: Agindua, 2007ko apirilaren 26koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espeditzeak aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzkoa. Eta, horrenbestez, deialdiaren xede diren dirulaguntzak gauzatzeko, nahitaezkoa da kreditu egokia eta nahikoa izatea Euskal Autonomia Erkidegoko 2020ko aurrekontu orokorretan.

Dirulaguntzen deialdia egiteko, hauek bete behar dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua), Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean oinarrizko manuak (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez garatua), eta laguntzetan eta dirulaguntzetan aplikatzekoak

diren gainerako xedapenak. Eta eskuragarri dauden bitarteko ekonomikoak baliatuko dira, ebazpen honetako irizpideen arabera.

Hori dela eta,

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da onartzea 2020ko aurrekontu-ekitaldirako dirulaguntza jakin batzuen deialdia; EAEko enpresa edo lantokietako prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarritzko prestakuntza urte horretan ematen duten entitate publikoak edo pribatuak izango dira dirulaguntza horien hartzaileak Dirulaguntzak aurreikusita daude uztailaren 30eko 125/2018 Dekretuan, zeinaren bidez ezartzen baitira EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarritzko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programaren oinarri orokorrak (2018ko abuztuaren 3ko EHAA, 149. zk.), 2020ko urtarrilaren 1 eta azaroaren 27 artean.

##### 2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Aurreko artikuluko xederako baliabide ekonomikoak Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen aurrekontuetan horretarako ezarritako aurrekontu-kreditu egokietatik aterako dira, eta hirurehun mila (300.000) euro inguru dira.

2.– Ebazpen honetan ezartzen denez, deialdi honen guztizko aurrekontu-zuzkiduratik, gehienez ere, 100.000 euro bideratuko dira zati arautzailearen prestakuntza finantzatzeko, eta, gehienez ere, 200.000 euro, zati teknikoaren prestakuntza finantzatzeko, hala xedatuta baitago uztailaren 30eko 125/2018 Dekretuaren 9. artikuluan. Dekretu horren bidez, honako programa honen oinarri orokorrak ezartzen dira: EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarritzko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programa.

3.– Dirulaguntza horiek emateko, nahitaezkoa da kreditu egokia eta nahikoa izatea horretarako Euskal Autonomia Erkidegoko 2020ko aurrekontu orokorretan, honako hau kontuan hartuta: Agindua, 2007ko apirilaren 26koa, Ogasun eta Herri Administrazioi sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espedituentz aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzkoa; zehazki, aginduaren 5.3 artikuluan xedatua.

##### 3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Deialdi hau egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten entitateei zuzendutako dago. Erakundeok prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarritzko prestakuntza emateko betekizunak bete behar dituzte, uztailaren 30eko 125/2018 Dekretuan araututakoari jarraituz (2018ko abuztuaren 3ko EHAA, 149. zk.), eta, gainera, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak egiaztatuak izan behar dute. Hona hemen entitateok:

1.– Prestakuntza-zentroak, publikoak zein pribatuak.

2.– Erakunde sindikalak.

3.– Prebentzio-zerbitzu egiaztatuak, horiek itunduak dituzten enpresetako prebentzio-ordezkariei zuzenduak.

#### 4. artikulua.– Eskaeren tramitazioa.

1.– EAEko enpresa edo lantokietan prebentzio-ordezkariei prestakuntza emateko egiaztatutako erakundeek eskatu ahal izango diote dirulaguntza hau Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari.

2.– Ikasleak prebentzio-ordezkariek baino ez dira izango, eta, prestakuntza-ekintza egin baino lehen, nahitaez inskribatuta egon behar dute Laneko arriskuak prebenitzeko ordezkarien Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroan, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailari atxikita.

3.– Prestakuntza-ekintza bakoitzerako, dirulaguntza jasotzeko eskabide bat aurkeztu beharko da, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko tramitazio elektronikoen bidez (<http://www.euskadi.eus>), eta, eskabidearekin batera, a) eta b) letretan adierazitako prozedura elektronikoen eskuragarri dauden dokumentuak aurkeztuko dira. Ebazpen honetako I. eranskinean zehaztuta dago eskabidearen edukia.

a) Arlo normatiboko prestakuntzari dagokionez, prozedura elektronikoa hau da:

Prebentzio-ordezkariei arau-arloan oinarrizko prestakuntza emateko dirulaguntza (erreferentzia: 1029805).

Gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/servicios/1029805>

Euskaraz: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1029805>

b) Arlo teknikoko prestakuntzari dagokionez, prozedura elektronikoa hau da:

Prebentzio-ordezkariei arlo teknikoan oinarrizko prestakuntza emateko dirulaguntza (erreferentzia: 1029905).

Gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/servicios/1029905>

Euskaraz: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1029905>

4.– Eskaera elektronikorekin batera, «III. eranskina. Prestakuntza-ekintzari buruzko datuak» aurkeztu beharko dute, dirulaguntza eskatzen zaion prestakuntza-ekintzan parte hartzen duten prebentzio-ordezkariei buruzko behin-behineko datuen dokumentua.

5.– Espediente bakoitzera sartzeko, izapidetzeko eta jarraipena egiteko, entitate juridiko eskatzaileak «Nire Karpeta» atalera jo beharko du Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa (<http://www.euskadi.eus>).

#### 5. artikulua.– Eskaerak aurkezteko epeak.

1.– Eskaerak aurkezteko epea 2020ko urtarrilaren 1ean hasiko da, eta 2020ko azaroaren 27ko 23:59an amaituko edo, bestela, deialdi honen xede diren dirulaguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak amaitzean. Azken kasu horretan, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak emango du horren berri EHAAren.

2.– Entitate prestatzaileek programatuta daukaten prestakuntza-ekintza bakoitza hasi baino 7 egun lehenago gutxienez eskatu beharko diote dirulaguntza Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari.

#### 6. artikulua.– Eskabideen akatsak zuzentzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan ezarritakoari jarraituz, aurkeztu beharreko eskabideek eta dokumentuek ez

badituzte betetzen deialdi honetan ezarritako baldintzak, edo haien edukia ez bada nahikoa, 10 eguneko epearen barnean gabezia hori zuzentzeko edo eskatutako dokumentuak aurkezteko eskatuko zaio eskatzaileari, eta horrela egin ezean eskabideari uko egin diola ulertuko dela adieraziko zaio, betiere Administrazioak berariazko ebazpena eman eta jakinarazi ondoren.

Akatsak zuzentzeko jakinarazpena elektronikoki egingo da. Jakinarazpenak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko «Nire Karpeta» atalean kontsultatu beharko dira. Jakinarazpen hori egindakotzat joko da, interesdunak jaso izana elektronikoki izenpetzen duenean. Jakinarazpena bidali eta hamar eguneko epean interesdunak ez badu edukia eskuratu, ukatu egin duela ulertuko da, eta izapidea egindakotzat joko da prozeduraren arabera, non eta ez den egiaztatzen, ofizioz edo entitate hartzaileak eskatuta, teknikoki edo materialki ezin izan dela jakinarazpen horren edukia sartu.

#### 7. artikulua.– Dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztea.

1.– Finantzatzeko, eskola-orduko 117,73 eurorenak izango dira deialdi honen xede diren prestakuntza-jarduerak garatzeko prestakuntza-ordu bakoitzeko aplikatu daitezkeen gehieneko modulu ekonomikoak (planifikatzeak eta gauzatzeak eragindako kostu guztiak barne).

Kontuan hartuta 125/2018 Dekretuaren 14. artikulua:

2.– Prestakuntza-jarduera bakoitzeko diruz lagun daitezkeen gehieneko parte-hartzaile kopurua 15 prebentzio-ordezkarikoa izango da.

Parte hartzen duten prebentzio-ordezkariek 15 baino gutxiago badira, gaztelaniaz ematen diren ikastaroetan, ekintzaren finantzaketa-ehunekoa uztailaren 30eko 125/2018 Dekretuaren 14. artikuluan xedatuaren arabera izango da (beheko taula).

3.– Ezingo dute dirulaguntzarik jaso gutxienez 10 ikasle biltzen ez dituzten taldeek. Euskarazko taldeak salbuetsita, gutxienez bost prebentzio-ordezkarik dituzten taldeak ere onartuko direlako, euskararen erabilera sustatzeko laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntzan. Euskarazko ekintzen finantzaketa taula honen arabera egingo da:

Gaztelaniazko ikastaroak		Euskarazko ikastaroak	
Berlaratuen kopurua	Finantzaketa %	Berlaratuen kopurua	Finantzaketa %
15 edo gehiago	% 100	15 edo gehiago	% 100
14	% 98	14	% 98
13	% 96	13	% 96
12	% 94	12	% 94
11	% 92	11	% 92
10	% 90	10	% 90
10 parte-hartzailetik behera	Ez dute dirulaguntzarik	9	% 85
		8	% 80
		7	% 70
		6	% 60
		5	% 50
		5 parte-hartzailetik behera	Ez dute dirulaguntzarik

4.– Dirulaguntzaren zenbatekoak barnean hartuko ditu prestakuntza-materialen gastuak.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak dagozkion prestakuntza-eskualiburuak emango dizkio doan ikasle bakoitzari. Sobera geratzen diren eskuliburuak Osalani itzuli beharko zaizkio.

5.– Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina onartzeko azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua aplikatuz, bazterkeriak prebenitzeko edo ezabatzeke xedearekin eta desgaitasunen bat duten prebentzio-ordezkariek prestakuntza jasotzeko dauzkaten zailtasunak edo desabantailak konpentsatu nahian, komunikaziorako laguntza eta zerbitzu osagarri guztiak jarriko ditu Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak, deialdi honen kontura ordainduta.

8. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa.

1.– Prestakuntza-ekintza amaitu eta gehienez ere 20 eguneko epean, dirulaguntza jasotzen duen entitateak dokumentuak beteta aurkeztu beharko ditu Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoa: Guztiak ere ongi beteta, eta informazio guztia osorik dagoela. Informazioa ez bada zuzena edo osoa, erakunde eskatzaileak zuzendu beharko du, eta, ez bada hala egiten, dirulaguntza ukatuko da.

Kontuan hartu behar da arlo normatiboa ematen duten entitateek eman behar dietela «V. eranskina. Prebentzio-ordezkariei Arlo Teknikoko oinarrizko prestakuntza emateko akreditatuta dauden zentroyen zerrenda» parte hartzaileei. Zerrenda hori akreditatutako zentroyen zerrenda aldatu ahala eguneratuko da, are deialdi honek iraun bitartean ere. Zati normatiboa ematen duten entitateek prozedura elektronikoa dagoen zerrenda berriena aurkeztu beharko diete prebentzio-ordezkariei, IV. eranskinaren bidez hautatzen duten zati teknikoaren zentroa hautatzeko.

2.– Justifikazioan aurkeztu beharreko dokumentuak hauek dira:

– «III. eranskina. Prestakuntza-ekintzari buruzko datuak», azken dokumentua, dirulaguntza eskatzen zaion prestakuntza-ekintzan parte hartzen duten prebentzio-ordezkariei buruzko behin-behineko datuekin.

– «II. eranskina. Bertaratze-kontrolerako orria» dokumentu eskaneatua pdf formatuan. Prestakuntza-ekintza zein egunetan eman den jaso behar du, bai eta parte hartzen duten prebentzio-ordezkariei eta irakasle guztien NA zenbakia, izen-abizenak eta sinadura ere.

– «IV. eranskina. Arlo teknikorako prestakuntza-zentroari dagokionez, prebentzio-ordezkariek egindako hautaketari buruzko datuak» baterako pdf dokumentu eskaneatua, bertan jasota zer eskaera egin dituzten prebentzio-ordezkariek zati teknikoari dagokionez, zeinean, V. eranskinan jasotzen diren akreditatutako prestakuntza-zentroetako biren artean aukeratu behar baitute. IV. eranskina, zati normatiboa ematen duten entitateek (sindikatuak gehienak) baino ez dute aurkeztu behar.

– «VI. eranskina. Ebaluazio galdetegia. Prebentzio-ordezkarria» dokumentu eskaneatua. Prestakuntza-ekintzako ikasleek erantzundako inkestak jaso behar ditu, eta izena eman duten ikasleen kopurua eta inkesta hau erantzun duten ikasleen kopurua adieraziko dira.

– «VII. eranskina. Ebaluazio galdetegia. Irakasleak» dokumentu eskaneatua. Prestakuntza-ekintzaren irakasleak erantzundako inkesta jasoko du.

3.– Justifikazioak eta bete beharreko ereduak izapidetzeko azalpenak eskuragarri daude Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa, ebazpen honetako 4.2.a) eta b) artikuluan adierazitako prozedura elektrikoetan.

4.– Administrazioak egiaztatze-, kontrol- eta ikuskatze-eskumenak esleituta dauzka. Horregatik, edozein unetan, eskaera, aurkeztutako dokumentuak eta erantzukizunpeko adierazpenak ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio eta dokumentazio osagarri guztia eskatuko die

entitate eskatzaileei, bai eta, benetakotasuna egiaztatzearen, jatorrizko dokumentazioa aurkezteko ere. Horregatik, Administrazioak prozedurarekin aurrera ez jarraitzea erabaki ahal izango du, aurkeztutako datuetan funtsezko zehaztasunik eza, faltsutasuna edo omisioa izanez gero, entitate eskatzaileari legezko beste erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak baztertu gabe.

9. artikulua.– Ebazpena, errekursoak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, eta jakinarazteko modua.

Kontuan hartuta 125/2018 Dekretuaren 13. artikulua:

1.– Deialdiaren ebazpena, dirulaguntza emateari dagokionez, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak emango du, erakunde horretako teknikariek egindako txostenak aintzat hartuta.

2.– Eskabideek deialdiko betekizunak betetzen dituztela egiaztatutakoan, ordenan ebatziko dira, espedientea osatzen den unearen arabera, jarduketa horietarako aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura agortu arte. Funtsak agortzen badira, aurkeztu diren eta ebazteke dauden eskabideak ezetsi egingo dira deialdi honen esparruan.

3.– Hartutako ebazpena erakunde eskatzaileei jakinaraziko zaie, banaka, gehienez ere bi hileko epean, dirulaguntzaren eskabidea aurkeztu eta hurrengo egunetik aurrera.

4.– Apartatu honetan aipatutako epea igarota ebazpenik jakinarazi ez bada, beren eskabideak ezetsi direla ulertu ahal izango dute erakunde interesdunek, hala xedatzen baitu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikulua.

5.– Zuzendari nagusiaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari eta, haren aurka, aukerako berraztertzeko errekursoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri, hilabeteko epean, interesdun bakoitzari jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekursoa aurkez daiteke, zuzenean, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera.

6.– Publikotasun-ondorioetarako soilik, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira dirulaguntzak emateko ebazpenak.

10. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

Prozedura honetan jasotzen diren datu pertsonalak honako hauek kontuan hartuta tratatuko dira: 2016/679 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa; eta datuen babes-arloko gainerako garapen-arauak.

Jakinarazten da prozedura honetan bildutako datu pertsonalak «Prebentzio-ordezkarien preskakuntza diruz laguntzea eta kudeatzea, eta prestakuntzaren ziurtapena» izeneko tratamenduan jasoko direla.

Babes hori aintzat hartuta, izaera pertsonaleko datuen tratamenduari buruzko oinarriko informazioa ematen da jarraian:

Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa	
Tratamendu-jarduera	Prebentzio-ordezkarien prestakuntza diruz laguntzea eta kudeatzea.
Tratamendu-arduraduna	Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea – Osalaneko zuzendari nagusia Dinamita bidea z.g., – 48903 Barakaldo – Posta elektronikoa: osalanscr@euskadi.eus
Tratamenduaren helburua	Prebentzio-ordezkariek prestatzeko, laneko arriskuen prebentziorako ikastaroak antolatzea, dirulaguntza kudeatzea, eta ikastaroen ziurtapena.
Tratamenduaren legitimazioa	Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sortzen duen abenduaren 21eko 7/1993 Legea (1994ko urtarrilaren 7ko EHAA, 4. zk.). Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (2003ko azaroaren 18ko BOE, 276. zk.). 125/2018 Dekretua, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez ezartzen baitira EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarriko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programaren oinarri orokorrak (2018ko abuztuaren 3ko EHAA, 149. zk.). Erabakia, 1997ko abenduaren 19koa, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, «EAEn Osasun Alorreko eta Laneko Arriskuak Prebenitzeko Alorreko Lanbide Arteko Akordioa» erregistratzeko eta argitaratzeko dena (1998ko urtarrilaren 27ko EHAA, 17. zk.). Era berean, legitimazioak honako hauek ditu oinarri: <input type="checkbox"/> Interesdunaren baimena <input type="checkbox"/> Interesduna parte den kontratu bat egikaritzeko edo, interesdunak eskatuta, kontratu aurreko neurriak aplikatzeko behar den tratamendua. <input type="checkbox"/> Aplikatzekoak diren lege-betebeharrak betetzeko behar den tratamendua.
Kontserbazio-epea	Eskatzeko izandako xedea betetzeko eta litezkeen erantzukizunak erabakitze behar den denbora. Artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudia aplikatuko da, kontuan hartuta uztailaren 17ko 4/1992 Legean aurreikusitako epeak.
Lagapenen edo transferentzien hartzaileak	Datu pertsonalak honako hauei eman ahal izango zaizkie: <input type="checkbox"/> Ogasun Publikoa eta zerga-administrazioa. <input type="checkbox"/> Interesdun legitimoak. <input type="checkbox"/> Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk. <input type="checkbox"/> Sindikatuak eta langile-batzordeak. <input type="checkbox"/> Beste hartzaile batzuk: entitate prestatzaileak, ikastaroak egitean beharrezko laguntzaile moduan dihardutenak.
Interesdunen eskubideak	Interesdunek, nahi izanez gero, honako hauek erabili ahal izango dituzte tratamenduaren arduradunaren edo Eusko Jaurlaritzako Datuen Babeserako ordezkarieren aurrean: datuak irispidean izateko eskubidea; datuak zuzentzeko, ezerezteko eta ezabatzea (ahazteko eskubidea); tratamendua mugatzeko; eramangarritasuneko; eta banan-banakotutako erabakien xedea ez izatekoa. Gainera, eskumena duen kontrol-agintaritzari erreklamazio bat aurkezteko eskubidea dute. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

## AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

## AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraz, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakiok Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean; bi kasuetan, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea kontatzen. Hori guztia hala xedatuta dago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46. artikuluetan.

Barakaldo, 2019ko azaroaren 14a.

OSALANeko zuzendari nagusia,  
ALBERTO ALONSO MARTÍN.

## I. ERANSKINA

## ESKABIDEKO PROZEDURETAN AGERTZEN DIREN DATUEI BURUZKO INFORMAZIOA

Eranskin hau informatiboa da, eta helburutzat du entitate interesdunei ezagutaraztea nolako egitura eta edukia aurkituko duten Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan dirulaguntzaren eskaera elektronikoa egitean.

## 1.– Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren laguntza.

Eusko Jaurlaritzak, DACIMA Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren bitartez (Eusko Jaurlaritzaren administrazio elektronikoan eskuduna baita), zenbait jarraibide-gidaliburu sortu ditu [Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan](#), pertsonak eta entitateek tramitazio elektronikoaren alderdiak ezagut ditzaten eta izapidetze horretan lagungarriak izan daitezten.

Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren menu horizontalean, [«Laguntza»](#) izeneko atal bat sortu da, eta, han, herritarrek eta entitateek eskuragarri izango dituzte izapidetzeko laguntza- eta euskarri-gida horiek.

Tramitazioan arazoren bat izanez gero, hona hemen zenbait konponbide:

- Harremanetan jartzea Zuzenean-Herritarrarentzako Zerbitzuarekin, 012 telefonora deituta.
- Tramitazio elektronikoan arazoren bat izanez gero, jarri harremanetan Erabiltzaileentzako (edo entitateentzako) Arreta Zentroarekin, 945 01 68 38 telefonora deituta.

## 2.– Prebentzio-ordezkariek trebatzeko diruz lagundutako oinarrizko mailako prestakuntza emateko egiaztapena.

Entitate eskatzaileak, dirulaguntza bat eskatu aurretik, egiaztatu beharko du prestakuntza emateko eskakizunak betetzen dituela, uztailaren 30eko 125/2018 Dekretuko 5. artikulua eta hurrengoan arabera.

Entitate eskatzailea ez badago akreditatuta, edo akreditatua izateko baldintzak aldatu baditu, akreditazio-eskaera egin beharko du Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan, prozedura elektroniko honetan:

Prebentzio-ordezkariek trebatzeko diruz lagundutako oinarrizko mailako prestakuntza emateko egiaztapena (erreferentzia: 1042406)

Gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/autorizacion/formacion-basica-delegados-prevencion/y22-izapide/es>

Euskaraz: <https://www.euskadi.eus/baimena/oinarrizko-prestakuntza-prebentzio-ordezkariek/y22-izapide/eu>

Egiaztapena jakinarazi ondoren, lehen aldiz egiaztatutako entitateak aukera izango du kasuko ikastaroak emateko, eta, horiek eman ondoren, aukera izango du ebazpen honetan jasotako dirulaguntza eskatzeko.



### 3.– Dirulaguntza eskatzeko prozedura mota.

Eskaera egiteko prozedura elektronikoa baino ez da izango.

3.1.– Arlo normatiboa: prebentzio-ordezkarientzat arlo normatiboan oinarritzko mailako prestakuntza-ikastaroak egiteagatik dirulaguntza eskatzean, eskaera Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren prozedura honetan egin behar da, eskatutako dokumentazioa gehituta (III. eranskina).

– Arlo normatiboa:

Prebentzio-ordezkariei arau-arloan oinarritzko prestakuntza emateko dirulaguntza (erreferentzia: 1029805).

Gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/servicios/1029805>

Euskaraz: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1029805>

3.2.– Arlo teknikoa: prebentzio-ordezkarientzat arlo teknikoan oinarritzko mailako prestakuntza-ikastaroak egiteagatik dirulaguntza eskatzean, eskaera Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren prozedura honetan egin behar da, eskatutako dokumentazioa gehituta (III. eranskina).

– Arlo teknikoa:

Prebentzio-ordezkariei arlo teknikoan oinarritzko prestakuntza emateko dirulaguntza (erreferentzia: 1029905).

Gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/servicios/1029905>

Euskaraz: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1029905>

### 4.– Eskabidea betetzeko jarraibideak.

Eskabidea betetzerakoan, ezinbestekoa da entitatearen edo enpresaren sinadura-txartela edo ziurtagiri elektronikoa izatea. Gogoan izan zure entitatearen edo antolakundearen izenean diharduzula.

Entitateko titularraren datuak betetzeko jarraibide guztiak aurkituko dituzu eskabidean. Dagokion ziurtagiri elektronikoarekin edo txartelarekin konektatu ondoren, eskabidean azalduko da zer entitate ordezkatzuz diharduzun. Zerrenda zabalgarrian, hautatu behar duzu zein ordezkatzun duzun; entitate edo enpresa batean baino gehiagotan jardunez gero, aukera zuzena hautatu behar duzu.

Tramitazioaren pausoren batean arazoak izanez gero, jarri harremanetan Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean Zerbitzuarekin, bi telefono hauetako batera deituta: 012 edo 945 01 68 38.

Eskabidean, besteak beste, kontzeptu hauek azalduko dira:

– Eskatzailea: hartzailatzat jotakoak izango dira; normalean, IFK duten pertsona juridikoak.

– Organo instrukzio-egilea: Osalaneko Zuzendaritza Nagusia da; horregatik ez da beste erregistorik edo izenik sartu behar.

– Espedientean interesdun gisa dihardut: eskatzaile gehienek aukera hau hautatu beharko dute eskabidean, dagokien entitate juridikoaren langile gisa dihardute eta.

– Norbait ordezkatzuz dihardut: baldin eta eskatzailearen langileak Eusko Jaurlaritzaren Erregistro Elektronikoan erregistratuta badaude pertsona juridiko baten edo entitate baten langile gisa; kasu horretan, eskatzaileak bere identifikazio elektronikorako bitartekoak erabili ahal izango ditu, lan egiten duen entitatearen izenean. Kasu horretan, gainera, langileak bere entitatearen ordezkari gisa jardun

dezake, eta entitatea espedientearen titular gisa agertuko da. Entitateko langile gisa izena emanda dauden langileek aukera izango dute entitatearen jakinarazpenak eta espedientearen xehetasunak ikusteko, eta, gainera, agiriak onetsi ahal izango dituzte, euren identifikazio elektronikorako bitartekoarekin (Nire karpeta aplikazioarekin).

#### 5.– Erantzukizunpeko adierazpenak.

Erakunde eskatzaileak, bere erantzukizunpean, zenbait betebeharrak akreditatu behar ditu erantzukizunpeko adierazpenen bidez, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan eta aplikatzekoa den gainerako legedian eskatutakoa beteta.

Funtsezko zehaztasunik eza, faltsutasuna edo omisioa izanez gero, baliteke berekin erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak ekartzea.

Erakunde eskatzaileak bere erantzukizunpean adierazten du:

- 1) Deialdian eta indarreko arauetan ezarritako eskakizunak betetzen dituela.
- 2) Egia direla eskaera honetan eta aurkezpen- eta justifikazio-fasean gehitu zaizkion dokumentuetan jasotako datuak.
- 3) Akreditatzen duen dokumentazioa daukala, eta Administrazioaren eskura jarriko duela eskatzen zaionean.
- 4) Egunean dagoela zerga-betebeharrak betetzeari dagokionez.
- 5) Egunean dagoela Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeari dagokionez.
- 6) Ez duela izan inolako zigor- edo administrazio-zehapenik, eragozten dionik dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea, bereziki aipatuta sexu-diskriminazioaren ondorioz gertatuak.
- 7) Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean honako hauek direla eta jasotako betebeharrak betetzen dituela: prebentzio-antolamenduko ereduak, arriskuen ebaluazioak, prebentzio-jardueraren plangintza eta, kasua bada, prebentzio-sistemaren ikuskapena.
- 8) Ez duela zigorrik jaso arau-hauste astunen edo oso astunen ondorioz azken bost urteetan, laneko segurtasun- eta osasun-arloan.
- 9) Konpromisoa hartzen duela ezarritako betebeharrak betetzen jarraitzeko eskubidearen aitopeneri atxikitako denboran zehar.
- 10) Ez dela dirulaguntza edo laguntzarik jasotzen ari, xede eta helburu bererako, ez administrazio publikoetatik ez erakunde pribatuetatik.

#### 5.– Berariaz uko egitea.

Entitate eskatzaileak lauki hau markatu beharko du, ez badu onartzen (berariaz uko egitea, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasoa) instrukzio-organoak datuak eskatzea jakiteko egunean dagoen ala ez zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzarekikoak betetzeari dagokionez. Aurka egonez gero, dokumentuen bidez justifikatu beharko ditu alderdi horiek (horretarako, «Erantsi dokumentuak» botoia erabil daiteke atal honetan, espedienteari erantsi nahi zaizkion dokumentuen kopia eranstea ahalbidetzen baitu).

#### 6.– Eskabidea sinatzea eta bidaltzea.

Azkenik, entitate eskatzaileak elektronikoki sinatuko du eskabidea, eta bidali egingo du. Eskabidea

aurkeztu duela dioen erregistro telematikoa jasoko du, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak elektronikoki sinatua.

Erregistro-dokumentuan, hauek jasoko dira: erregistroaren datuak (erregistro-zenbakia, erregistro-eguna eta aurkeztu den eguna), interesdun eskatzailearen datuak, helmuga, gaia eta erantsitako dokumentuen zerrenda.

Jarraian, dirulaguntza eskatzen duten entitateek ebazpenean zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko dute, 20 eguneko epean, gehienez ere, prestakuntza-ekintza amaitzen denetik hasita.

Tramitazioaren pausoren batean arazoak izanez gero, jarri harremanetan Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean Zerbitzuarekin, bi telefono hauetako batera deituta: 012 edo 945016838.

2019ko abenduaren 4a, asteazkena

## II. ERANSKINA

## PREBENTZIO-ORDEZKARIEN BERTARATZE-KONTROLA

Ikastaroari buruzko datuak			
Ikastaroaren zenbakia	Prestakuntza-entitatea	Udalerria	Bertaratze-eguna
			2020/ ___ / ___

Prebentzio-ordezkariek				
Zk.	Abizenak	Izena	Enpresa	Sinadura
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
11				
12				
13				
14				
15				
16				
17				
18				
19				
20				

Irakaslearen oniritzia			
Abizenak	Izena	Lekua eta data	Sinadura

Oharrak

2019ko abenduaren 4a, asteazkena

## III. ERANSKINA

## PRESTAKUNTZA-EKINTZARI BURUZKO DATUAK

III. eranskina. Behin-behinekoa  III. eranskina.  Behin betikoa

Izena PREBENTZIO-ORDEZKARIENTZAKO OINARRIZKO IKASTAROA: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

PRESTAKUNTZA NORMATIBOA (eu)  PRESTAKUNTZA TEKNIKOA (eu) 

Ikastaroari buruzko datuak						
Ekintza-zenbakia	Parte-hartzaile kopurua	Hasiera-data	Amaiera-data	Ordu kopurua	Ordutegia	Zer hizkuntzatan ematen den prestakuntza
2020/ /_ G edo A		2020/ ___ / ___	2020/ ___ / ___		__ : __ (e)tik __ : __ (e)ra	

Prestakuntza ematen duen entitatea			
<input type="checkbox"/> Sindikatua ----- <input type="checkbox"/> Prestakuntza-zentroa <input type="checkbox"/> Beste batzuk			
Entitatearen izen ofiziala			
Kalea, zenbakia eta solairua			
PK		Udalerria	
Telefonoa		Helbide elektronikoa	

Non emango den (aurrekoa ez bada soilik bete)			
Entitatearen izen ofiziala			
Kalea, zenbakia eta solairua			
PK		Udalerria	
Telefonoa		Helbide elektronikoa	

Irakasleei buruzko datuak		
Abizenak	Izena	NAN

Prebentzio-ordezkaritari buruzko datuak							Lan egiten duen enpresari buruzko datuak				
Zk.	Abizenak	Izena	NAN	Udalerria	Helbide elektronikoa	Sakelako telefonoa	Izen ofiziala	Tfnoa	Helbide elektronikoa	Udalerria	IFK
01											
02											
03											
04											
05											
06											
07											
08											
09											
10											
11											
12											
13											
14											
15											
16											
17											
18											
19											
20											

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA	
Tratamendu-jarduera	Prebentzio-ordezkarien prestakuntza diruz laguntzea eta kudeatzea.
Tratamendu-arduraduna	Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea – Osalaneko zuzendari nagusia Dinamita bidea z.g., – 48903 Barakaldo – Posta elektronikoa: <a href="mailto:osalanscrt@euskadi.eus">osalanscrt@euskadi.eus</a>
Tratamenduaren helburua	Prebentzio-ordezkariek prestatzeko, laneko arriskuen prebentziorako ikastaroak antolatzea, dirulaguntza kudeatzea, eta ikastaroen ziurtapena.
Tratamenduaren legitimazioa	<p>Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sortzen duen abenduaren 21eko 7/1993 Legea (1994ko urtarrilaren 7ko EHAA, 4. zk.).</p> <p>Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (2003ko azaroaren 18ko BOE, 276. zk.).</p> <p>125/2018 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez ezartzen baitira EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarriko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programaren oinarri orokorrak (2018ko abuztuaren 3ko EHAA, 149. zk.).</p> <p>Erabakia, 1997ko abenduaren 19koa, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, «EAEn Osasun Alorreko eta Laneko Arriskuak Prebenitzeko Alorreko Lanbide Arteko Akordioa» erregistratzeko eta argitaratzeko dena (1998ko urtarrilaren 27ko EHAA, 17. zk.).</p> <p>Era berean, legitimazioak honako hauek ditu oinarri:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Interesdunaren baimena.</li> <li>– Interesduna parte den kontratu bat egikaritzeko edo, interesdunak eskatuta, kontratu aurreko neurriak aplikatzeko behar den tratamendua.</li> <li>– Aplikatzekoak diren lege-betebeharrak betetzeko behar den tratamendua.</li> </ul>
Kontserbazio-epea	Eskatzeko izandako xedea betetzeko eta litezkeen erantzukizunak erabakitzeko behar den denbora. Artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudia aplikatuko da, kontuan hartuta uztailaren 17ko 4/1992 Legean aurreikusitako epeak.
Lagapenen edo transferentzien hartzaileak	<p>Datu pertsonalak honako hauei eman ahal izango zaizkie:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Ogasun Publikoa eta zerga-administrazioa.</li> <li>– Interesdun legitimoak.</li> <li>– Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.</li> <li>– Sindikatuak eta langile-batzordeak.</li> <li>– Beste hartzaile batzuk: entitate prestatzaileak, ikastaroak egitean beharrezko laguntzaile moduan dihardutenak.</li> </ul>
Interesdunen eskubideak	Interesdunek, nahi izanez gero, honako hauek erabili ahal izango dituzte tratamenduaren arduradunaren edo Eusko Jaurlaritzako Datuen Babeserako ordezkararen aurrean: datuak irispidean izateko eskubidea; datuak zuzentzeko, ezerezteko eta ezabatzea (ahazteko eskubidea); tratamendua mugatzekoa; eramangarritasunekoa; eta banan-banakotutako erabakien xedea ez izatekoa. Gainera, eskumena duen kontrol-agintaritzari erreklamazio bat aurkezteko eskubidea dute. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

2019ko abenduaren 4a, asteazkena

## IV. ERANSKINA

## ARLO TEKNIKORAKO PRESTAKUNTZA-ZENTROARI DAGOKIONEZ, PREBENTZIO-ORDEZKARIAK EGINDAKO HAUTAKETARI BURUZKO DATUAK

Ikastaroari buruzko datuak					
Non emango den	Hasiera-data	Amaiera-data	Aurrez aurreko ordu kop.	Ordutegia	Zer hizkuntzatan ematen den prestakuntza
	2020/ ___ / ___	2020/ ___ / ___		_(e)tik _(e)ra	

Prebentzio-ordezkaritari buruzko datuak			
Abizenak			
Izena			
NANaren zenbakia:		Sakelako telefonoa	
Helbide elektronikoa			
Kalea, zenbakia eta solairua			
PK		Udalerrria	

Prebentzio-ordezkaritaren enpresari buruzko datuak			
Enpresaren izen ofiziala			
IFK-zk.:		Telefonoa	
Helbide elektronikoa			
Industrialdea, kalea, solairua			
PK		Udalerrria	

Honako hau ikusi eta ukan dut: «V. eranskina. Prebentzio-ordezkarientzako ikastaroaren arlo teknikoan, oinarrizko prestakuntza emateko akreditatuta dauden entitateen zerrenda».

Ikastaroaren ZATI TEKNIKOA honako zentro hauetan egiteko ESKATZEN DUT, lehentasun-hurrenkera honen arabera.

Lehentasun-hurrenkera	Udalerrria	Prestakuntza-entitatea	Helbidea	Hizkuntza/
1.a				
2.a				

Lekua eta data	Prebentzio-ordezkaritaren sinadura

Garrantzitsua: atzeko aldean datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa duzu. Tratamendua sinatzea eta datu horiek lagatzea eskatzen da, ikastaroa eta dagokion ziurtagiria kudeatzeko.

2019ko abenduaren 4a, asteazkena

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA	
Abizenak	
Izena	
NAren zk.:	
Nire datu pertsonalak tratatzea baimentzen dut: <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez	
Lekua eta data	Prebentzio-ordezkararen sinadura

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA	
Tratamendu-jarduera	Prebentzio-ordezkarien prestakuntza diruz laguntzea eta kudeatzea.
Tratamendu-arduraduna	Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea – Osalaneko zuzendari nagusia Dinamita bidea z.g., – 48903 Barakaldo – Posta elektronikoa: <a href="mailto:osalanscrt@euskadi.eus">osalanscrt@euskadi.eus</a>
Tratamenduaren helburua	Prebentzio-ordezkariek prestatzeko, laneko arriskuen prebentziorako ikastaroak antolatzea, dirulaguntza kudeatzea, eta ikastaroen ziurtapena.
Tratamenduaren legitimazioa	<p>OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sortzen duen abenduaren 21eko 7/1993 Legea (1994ko urtarrilaren 7ko EHAA, 4. zk.).</p> <p>Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (2003ko azaroaren 18ko BOE, 276. zk.).</p> <p>125/2018 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez ezartzen baitira EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarritzko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programaren oinarri orokorrak (2018ko abuztuaren 3ko EHAA, 149 zk.).</p> <p>Erabakia, 1997ko abenduaren 19koa, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, «EAEn Osasun Alorreko eta Laneko Arriskuak Prebenitzeko Alorreko Lanbide Arteko Akordioa» erregistratzeko eta argitaratzeko dena (1998ko urtarrilaren 27ko EHAA, 17. zk.).</p> <p>Era berean, legitimazioak honako hauek ditu oinarri:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Interesdunaren baimena.</li> <li>– Interesduna parte den kontratu bat egikaritzeko edo, interesdunak eskatuta, kontratu aurreko neurriak aplikatzeko behar den tratamendua.</li> <li>– Aplikatzekoak diren lege-betebeharrak betetzeko behar den tratamendua.</li> </ul>
Kontserbazio-epea	Eskatzeko izandako xedea betetzeko eta litezkeen erantzukizunak erabakitze behar den denbora. Artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudia aplikatuko da, kontuan hartuta uztailaren 17ko 4/1992 Legean aurreikusitako epeak.
Lagapenen edo transferentzien hartzaileak	<p>Datu pertsonalak honako hauei eman ahal izango zaizkie:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Ogasun Publikoa eta zerga-administrazioa.</li> <li>– Interesdun legitimoak.</li> <li>– Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.</li> <li>– Sindikatuak eta langile-batzordeak.</li> <li>– Beste hartzaile batzuk: entitate prestatzaileak, ikastaroak egitean beharrezko laguntzaile moduan dihardutenak.</li> </ul>
Interesdunen eskubideak	Interesdunek, nahi izanez gero, honako hauek erabili ahal izango dituzte tratamenduaren arduradunaren edo Eusko Jaurlaritzako Datuen Babeserako ordezkararen aurrean: datuak irispidean izateko eskubidea; datuak zuzentzeko, ezerezteko eta ezabatzekoa (ahazteko eskubidea); tratamendua mugatzekoa; eramangarritasuneko; eta banan-banakotutako erabakien xedea ez izatekoa. Gainera, eskumena duen kontrol-agintaritzari erreklamazio bat aurkezteko eskubidea dute. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.



## V. ERANSKINA

## PREBENTZIO-ORDEZKARIENTZAKO IKASTAROAREN ARLO TEKNIKOAN, OINARRIZKO PRESTAKUNTZA EMATEKO AKREDITATUTA DAUDEN ENTITATEEN ZERRENDA (2019-09-20AN EGUNERATUTA)\*

## 1.- ARABA

Udalerrria	Prestakuntza-entitatea	Helbidea	PK	Euskara	Gaztelania
Vitoria-Gasteiz	CEI Formación y Asesoramiento Empresarial SLU	Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera. Manuel Iradier kalea 17			
Vitoria-Gasteiz	Eraikuntza LHII «Eraiken» - Gasteiz	Oto hiribidea 33	01010	X	X
Vitoria-Gasteiz	Fondo Formación Euskadi SLL	José Mardones 8	01003	X	X
Vitoria-Gasteiz	Fundación Diocesanas-Jesús Obrero Fundazioa (Egibide)	Frantzia 32	01002	X	X
Vitoria-Gasteiz	Fundación Diocesanas-Jesús Obrero Fundazioa (Egibide)	S. Ignacio 6	01001	X	X
Vitoria-Gasteiz	Instituto Europa SL	Domingo Beltrán de Otazu 64 - 66 B	01012	X	X
Vitoria-Gasteiz	Instituto Europa SL	Manuel Iradier kalea 46, behea	01005	X	X
Vitoria-Gasteiz	Integra Soluciones Empresariales SL.	Mariano San Miguel musikaria 1, behea	01003		X
Vitoria-Gasteiz	Prebentzio Ordezkararen sinadura	Pedro Asua kalea 69 (SEAVI)	01008		X
Vitoria-Gasteiz	Urko Servicios de Prevención S. Coop.	Nafarroako Errege-erreginen kalea 51 (Erkide)	01013	X	X

## 2.- GIPUZKOA

Udalerrria	Prestakuntza-entitatea	Helbidea	PK	Euskara	Gaztelania
Andoain	Fundacion Legarra Echeveste – La Salle Berrozpe	La Salle etorbidea 5	20120	--	X
Donostia	CEI Formación y Asesoramiento Empresarial SLU	Zubieta 54, behea	20007	X	X
Donostia	Innovación y Coordinación en Estrategia Formativas SL (Inkor SL)	Juan Fermín Gilisagasti 2- 1. sol., 114-115 bul.– Zuatzu Enpresa Parkea	20018	X	X
Donostia	Nazaret Fundazioa	Aldakonea, 36	20012	X	X
Donostia	URKO Servicios de Prevención S. Coop.	Tejeria 19-21 behea	20012	X	X
Donostia	Lanpre Formación SL	Tejeria 19-21 behea	20012		X
Eibar	CEI Formación y Asesoramiento Empresarial SLU	Eibarko Txikito kalea 8, behea	20600	X	X
Eibar	Urko Servicios de Prevención S. Coop.	Azitain indus.,3 bis	20600	X	X
Erresteria	Fondo Formación Euskadi SLL	Agustinas etorbidea z.g.	20100	--	X
Irun	Asociación Pedagógica Mendibil	Letxunborro hiribidea. Anaka indus. 58	20305	--	X
Irun	CEI Formación y Asesoramiento Empresarial SLU	Juan de la Cruz 2, behea 2	20302	X	X
Irun	HLBHIP-CPEIPS Irungo La Salle	Elizatzko Hiribidea 14-16.	20303		X
Lasarte-Oria	CEI Formación y Asesoramiento Empresarial SLU	Rekalde 1 – 1. solairua, 41 bulegoa, Irubide eraikina	20160	X	X
Zarautz	Innovación y Coordinación en Estrategia Formativas SL (Inkor SL)	Araba, 45 F	20800	X	X
Zumarraga	Urola Garaiko Lanbide Eskola	Beloki Ibilbidea z.g.	20700		X

2019ko abenduaren 4a, asteazkena

## 3.- BIZKAIA

Udalerrria	Prestakuntza-entitatea	Helbidea	PK	Euskara	Gaztelania
Zornotza	Integra Soluciones Empresariales SL	Boroa Elkartegia 19, behea 6. bul., 17. pab.	48340	--	X
Barakaldo	CEI Formación y Asesoramiento Empresarial SLU	Bizkaiko Labe Garaiak etorb. 33 (BIC Bizkaia Ezkerraldea)	48901	X	X
Barakaldo	Jokabide eta Prebentzio Eskola SL	Ugartebeitia 7-3. sol. (Innobak eraik.)	48903	--	X
Barakaldo	Fundación de Trabajadores de la Siderurgia Integral	Dolores Ibarruri pasealekua 80, 1. esk.	48901	--	X
Barakaldo	Integra Soluciones Empresariales SL	Ugartebeitia 7-3, 20. dep.	48903	--	X
Barakaldo	Lanpre Formación Sociedad Limitada	Labe Garaien etorb. 33 (BIC Bizkaia Eraikina - AHV aretoa)	48901	--	X
Barakaldo	Urko Servicios de Prevención S. Coop.	Bizkaiko Labe Garaien etorb. 33 (CEDEMI)	48901	--	X
Trapagaran	Fondo Formacion Euskadi SLL	San Bizente errepidea, 10. kilometroa	48510	X	X
Basauri	Bidebieta LHII	Agirre Lehendakaria 97	48970	--	X
Basauri	Lanpre Formación Sociedad Limitada	Nerbioi 5	48970	--	X
Basauri	Lanpre Formación Sociedad Limitada	Basozelai 11 (Basozelai Auzo Etxea)	48970	--	X
Bilbao	Almi Bilbo SAL (Almi ikasketazentzua)	Agirre Lehendakaria 29, 1.a	48014	X	X
Bilbao	Juritecnia SL	Areatza 5, 1. solairua	48005	X	X
Bilbao	Nuevas Promociones-Gorapen Berriak SL (UP Formacion)	Areilza Dokorea 39	48010	X	X
Bilbao	Sdad. Coop. de Enseñanza Zabalburu	Itxaropen kalea 12	48005	--	X
Galdakao	Urko Servicios de Prevención S. Coop	Lapurdi, 27 solairuartea (Alfa Formación)	48960	--	X
Iurreta	Iurreta LHII	Olaburu 19	48215	--	X
Areeta-Getxo	Arrigunaga Asesores SLL (AGA Formación)	Villa de Plencia 28, 51 behea	48930	--	X
Areeta-Getxo	Ibaiondo Lanbide Heziketa Ikastetxea SLL	Venancio Etxebarria 18	48930	X	X
Leioa	Konectia Servicios Integrales SL	Landabarri pasealekua 3-5. solairua - La Avanzada-Artaza eraikina	48940	X	X
Loiu	Instituto de Formación Práctica de Riesgos Laborales SL	Txorierri etorbidea 16	48180	X	X
Markina-Xemein	Lea Artibai Ikastetxea S. Koop.	Xemein etorbidea 19	48270	X	X
Portugalete	Repelega LHII	Miguel Unamuno 19	48920	X	X
Santurtzi	San Jorge LHII	Pajares 34	48980	--	X

\*(Azken eguneratzea: 2019-09-20; akreditatutako zentzoren zerrenda aldatu ahala eguneratuko da).

## VI. ERANSKINA

## IKASLEEN EBALUAZIO-GALDETEGIA

Prestakuntza-entitatea	
Udalerría	
Ikastaroa noiz egin den	
Prestakuntza-arloa	<input type="checkbox"/> NORMATIBOA <input type="checkbox"/> TEKNIKOA
Zer hizkuntzatan eman den prestakuntza	

Informazio hau isilpean gordeko da. Erantzun galdera guztiei, mesedez. Eskerrik asko zure laguntzagatik.

Eman egokiena iruditzen zaizun puntuazioa: 6 = Oso ondo, asko, ezin hobe, egokia eta 1= oso txarto, oso gutxi, eskasa, desegokia.

1	Zer iruditu zaizu ikastaroaren antolaketa?	1	2	3	4	5	6
2	Zer iruditu zaizu gai bakoitzari eskainitako denbora?	1	2	3	4	5	6
3	Nolakoa izan da bertaratuen parte hartzea?	1	2	3	4	5	6
4	Nolakoa izan da taldeko giroa?	1	2	3	4	5	6
5	Zure ustez, eman dizu ikastaroak PO lanak egiteko behar besteko ezagutza?	1	2	3	4	5	6
6	Lortu du irakasleak ikasleen interesari eustea?	1	2	3	4	5	6
7	Izan da praktikoa ikastaroa?	1	2	3	4	5	6
8	Balora ezazu irakaslearen ezagutza eta esperientzia	1	2	3	4	5	6
9	Iruditu zaizu egokia ikasgaien edukia?	1	2	3	4	5	6
10	Uste duzu ikastaroaren edukia lanerako baliagarri izango zaizula?	1	2	3	4	5	6
11	Eman dizu eskuliburuak informazio osagarria?	1	2	3	4	5	6
12	Egokia izan da lokala?	1	2	3	4	5	6

Ikastaroan, zer gustatu zaizu gehien?

Ikastaroan, zer gustatu zaizu gutxien?

## VII. ERANSKINA

## IRAKASLEENTZAKO EBALUAZIO-GALDETEGIA

Prestakuntza-entitatea	
Udalerrria	
Ikastaroa noiz egin den	
Prestakuntza-arloa	<input type="checkbox"/> <b>NORMATIBOA</b> <input type="checkbox"/> <b>TEKNIKOA</b>
Zer hizkuntzatan eman den prestakuntza	

Informazio hau isilpean gordeko da. Erantzun galdera guztiei, mesedez. Eskerrik asko zure laguntzagatik.

Eman egokiena iruditzen zaizun puntuazioa: 6 = Oso ondo, asko, ezin hobea, egokia eta 1= oso txarto, oso gutxi, eskasa, desegokia.

## EDUKIAK

1	Ikasleak argi eta garbi jabetzen dira ikastaroaren helburuez	1	2	3	4	5	6
2	Gaiak eta haien edukiak egokiak dira	1	2	3	4	5	6
3	Gaiei eskainitako denbora egokia da	1	2	3	4	5	6
4	Baliabide didaktikoak nahikoak dira	1	2	3	4	5	6
5	Gaien azalpena erraza da	1	2	3	4	5	6
6	Ikastaroa praktikoa da	1	2	3	4	5	6

## PARTE-HARTZAILEAK

7	Puntualtasuna eta ordutegia bete dira	1	2	3	4	5	6
8	Motibazioa handia izan da	1	2	3	4	5	6
9	Parte-hartzea handia izan da	1	2	3	4	5	6
10	Giro jatorra egon da	1	2	3	4	5	6
11	Prestakuntza-maila antzekoa zen	1	2	3	4	5	6
12	Oro har izandako aprobeitxamenduaren estimazioa	1	2	3	4	5	6

Oharrak